



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

**GOBERNU JUNTAK 2019.04.02AN EGINDAKO
BILKURAKO AKTA**

LEHENDAKARIA

UNAI ELKORO OIANGUREN

ARETXABALETA

BOKALAK

JOSÉ MIGUEL URIBARREN AZPIAZU
MARIA UBARRETXENA CID
JUAN KARLOS GARITANO EZKURRA
ELENA LETE GARCIA
LANDER ARREGI INCHAUSTI
IRAITZ LAZKANO GARITAONANDIA
JUAN BENGEOA PAGALDAY
MIKEL BIAIN BERRAONDO

ARETXABALETA
ARRASATE
ARRASATE
BERGARA
BERGARA
ELGETA
LEINTZ-GATZAGA
OÑATI

ETORRI GABEAK

BEÑARDO KORTABARRIA OLABARRIA
IBON ARRUPE ALDECOCEA
OSCAR GARCÍA HORRILLO
SABINO AZCARATE LETURIA
JOSÉ RAMÓN ZUBIZARRETA ALEGRÍA
IRATI ETXEBERRIA GABIRIA
NEREA ZUBÍA BLAZQUEZ

ANTZUOLA
ARRASATE
ARRASATE
BERGARA
ESKORIATZA
OÑATI
OÑATI

BEHIN BEHINEKO IDAZKARIA

BELEN TXINTXURRETA IPARRAGIRRE

JUNTAKO KIDE IZAN GABE ETORRIAK

ANDER ELORTONDO BERGARETXE

Behin behineko kontu-hartzailea



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

Mankomunitatearen egoitzako bilera gelan, 2019ko apirilaren 2an, 12:30etan, Mankomunitateko lehendakaria, Unai Elkoro Oianguren jauna, mahaiburu dela, Gobernu Juntaren bilkura berezia hasi da, goian aipaturikoak bertan direla.

1.- Aurreko bilkurako akta onartzea

Gobernu Juntak aho batez onartu du 2019ko otsailaren 19an egindako ohiko bilkurako aktaren zirriborroa.

2.- ZERBITZU OROKORRAK

2.1.- 2020ko Kontratazio Plana onartzea

Kontu-hartzailearen proposamena jarraituz, Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen 28.4 artikulua betez, Gobernu Juntak aho batez ONARTU DU Mankomunitatearen 2020ko Kontratazio Plana. Kontratazio Plan honetan erregulazio armonizatuaren menpe dauden ondorengo kontratuak sartu dira:

1. Epeleko zabortegiko zigilatze obra.
2. Hondakin bilketa zerbitzuko kamioien hornikuntza.

Plan hau aipatu Legearen 134. artikuluan aurreikusitako iragarki baten bitartez argitaratuko da.

2.2.- 2018ko Aurrekontuaren likidazioaren berri ematea

Kontu-hartzaileak 2018ko aurrekontuaren likidazioaren berri eman du. Hona hemen likidazioaren laburpena:

1.- Altxortegiko izakin likidoak, 2018.12.31n:	2.056.146,56 €
2.- Kobratu gabeko saldoak. 2018.12.31n:	1.452.965,65 €
Ekitaldiko aurrekontuko zordunak	700.241,82 €
Aurreko ekitaldietako aurrekontuko zordunak	222.973,81 €
Aurrekontuz kanpoko zordunak:	529.750,02 €
(-) Aplikatu gabeko kobrantzak:	0,00 €
3.-Ordaindu gabeko saldoak. 2018.12.31n:	833.752,25 €
Gastuen aurrekontuko hartzekodunak:	535.338,54 €
Sarreraren aurrekontuko hartzekodunak:	0,00 €
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak:	298.413,71 €
Aplikatu gabeko ordainketak:	0,00 €
4.- Altxortegi-gerakin gordina (1+2-3):	2.675.359,96 €



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

5.- Obra handietarako (Epele) hornidura:	1.685.891,52 €
6.- Saldo kobragaitzak:	3.839,37 €
7.- Altxortegi-gerakin likidoa (4-5-6):	985.629,07 €
8.-Finantzaketa lotua duten gastuetarako altxortegi-gerakina:	0,00 €
9.- Gastu orokorretarako altxortegi-gerakina:	985.629,07 €
10.- Aurtengo aurrekontuko eragiketen emaitza:	-326.672,88 €
11.- Aurreko ekitaldietan likidatutako aurreko. eragiketen emaitza:	-316.722,38 €
12.- Doiketa aurreko aurrekontu emaitza	-643.395,26 €
13.- Doiketak, gerakinaren finantzatutako obligazioengatik: (2018ko kredituak 2017ko gerakinekin finantzatutak)	248.578,98 €
14.- Doiketa finantzaketa lotua duten gastu desbiderapenagatik:	0,00 €
15.- Aurrekontu-emaitza (12+13+14):	-394.816,28 €
16.- Txerta daitezkeen kreditu-gerakinak:	666.476,41 €
17.- Txertatu ezin diren kreditu-gerakinak:	319.152,66 €

Gobernu Junta jakinaren gainean gelditu da.

2.3.- Foru Kontratazio Zentrala; automobilgintzako erregaien hornikuntza egiteko kontratazio espedienteari atxikitzea

Mankomunitate honetako Gobernu Juntak, 2011ko maiatzaren 18an egindako bilkuran, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Foru Kontratazioen Zentralak aurrera eramango duen eskuratzeko zentralizatutako sistemari atxikitzea erabaki zuen, horretarako Foru Aldundiarekin zegoen hitzarmena sinatuz.

Aipatu Zentralak, esparru-akordioaren prozedura bitartez, automobilgintzako erregaien hornikuntzarako kontratazio espediente berria irekitzeko asmoa du.

Eta Mankomunitate honek hornikuntza horren beharra duenez, Gobernu Juntak aho batez ZERA ERABAKI DU:

1. Automobilgintzako erregaien hornikuntzarako Gipuzkoako Foru Kontratazioen Zentralak irekiko duen esparru-akordioaren kontratazio espedienteari atxikitzea, 2011ko maiatzaren 18ko Gobernu Juntak onartutako hitzarmenean, eta 2011ko otsailaren 22ko 2011/3 Foru Dekretuan ezarritako eran eta baldintzetan.
2. Konpromisoa hartzea enpresa esleipendunari kontratu eratorria esleitzeko Foru Aldundiak esparru akordioa formalizatu ondoren eta hark adierazitako epean, betiere.
3. Lehendakariari baimena ematea Mankomunitate honi dagokion kontratu eratorria esleitzeko.



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

2.4.- 2019ko Aurrekontuan kredituak aldatzeko bigarren espedientea

Kontu-hartzaileak Mankomunitate honen aurrekontuko kredituak aldatzeko bigarren espedientearen berri eman du, kreditu gaikuntzaren modalitatekoa.

Kontu-hartzaileak egindako txostena ere banatu da. Bertan adierazten da aipatutako espediente bat datorrela aplikagarria zaien legeriarekin, zehazki 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 31. artikuluan ezarritakoarekin.

Gaia aztertu ondoren, Mankomunitateko Gobernu Juntak, aho batez honako hau ERABAKI DU:

- Mankomunitate honen 2019ko aurrekontuko kredituak aldatzeko bigarren espediente onartzea, kreditu gaikuntzaren modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin:

GASTUAK

Gastuen partida	Izena	Euroak
1.3004.219.162.10.01.2019	Bilketa puntuetako inguru mantenua	15.000,00
GAITUTAKO KREDITUAK GUZTIRA		15.000,00

SARRERAK

Sarrerren partida	Izena	Euroak
2.3000.422.162.10.01.2019	Udal kuota Ekarpinak Bilketa	15.000,00
FINANTZAKETA GUZTIRA		15.000,00

3.- HONDAKINEN KUDEAKETA

3.1.- Bi ikastetxeri Garbiguneetako hondakinak berrerabiltzeko baimena

Mankomunitatearen garbiguneetako hondakinak berrerabiltzeko jasotako bi eskaeren berri eman da. Honako hauek dira:

1. Errenteriako Lanbide Heziketako Don Bosco Ikastetxearena, bere Elektronika eta Telekomunikazio departamentuan, zehazki, bideo kamerak eta led pantailak berrerabiltzeko.



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

2. Eibarko Lanbide Heziketako Eskolarena, "Merkataritza Jarduerak" erdi mailako zikloaren "Eskaparatismo" ikasgaiaren altzariak, elektrodomestikoa, etabar, berrerauzitzeko.

Eskaera hauek Hondakinen Kudeaketa Batzordean aztertu ondoren, eta honen proposamena jarraituz, Gobernu Juntak aho batez ZERA ERABAKI DU:

- Bi ikastetxe hauei baimena ematea Mankomunitatearen garbiguneetatik hondakinak atera eta irakaskuntzan berrerauzitzeko, honako baldintza hauetan:

Segurtasun baldintzak.

- Mankomunitatea ez da egingo erantzule berreskuratutako hondakinen egoerarena. Beraz, hondakin hauek egoera txarrean, edota egoera arriskutsuan egonda ere (moztu dezaketen ertzak, korto zirkuitututako elektra tresnak, gas balbulak funtzionamendu okerrarekin, etab.), Debagoieneko Mankomunitateak ez du izango inongo erantzukizunik, berak baimendutako birziklatzaileak jaso dezakeen kalteetan.
- Mankomunitateak baimendutako birziklatzaileak errespetatu beharko du, Garbiguneetatik jasotako hondakinak bete behar duten garraio baldintzak. Hala ere, garraio lanetan istripu bat izanez gero, Debagoieneko Mankomunitateak ez du izango istripu honekiko inongo erantzukizunik.
- Birziklatzaileak ezingo du Debagoieneko Mankomunitateko instalazioetan (Garbiguneetan) berreskuratutako aparatua manipulatzea, eta ezta aurre manipulatzea (adibidez jatorrizko hondakina desmuntatu pieza konkretu bat eramateko).
- Ezin izango dira atera Garbiguneetatik hondakin arriskutsu likidoak, Mankomunitateak ezin baitu bermatu ontzian dagoen likidoa ontziaren etiketan adierazten dena dela ala ez, ezta ontziaren egoera estrukturala hondakin hori gorde eta garraiatzeko.

Hondakinekin egingo den erabileraren baldintzak.

- Hondakin hauen berreskurapenetik ezingo da etekin ekonomikorik atera, berriz konpondu eta salduz.
- Hondakin hauek desmuntatuz gero piezak lortzeko, baliagarriak ez diren osagai edo zatiei, berriz kudeaketa egokia emango zaie, Garbigunera eramanez sobratutako piezak. Manipulazioa eman den tokitik gertuen dagoen Garbigunera eramango dira.
- Berreskuratutako hondakin hauekin egin daitezkeen ikerketak edota hondakin hauetatik sortutako garapenek izan dezaketen publizitate edo publikazioetan, espresuki Debagoieneko Mankomunitateari eskertuko zaio proiektuan izan duen kolaborazioa. Beste hainbat enpresa eta erakunde ere izanez gero proiektu horretan parte hartu dutenak, gutxienez Debagoieneko Mankomunitatearen izena aipatuko da.



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

- Eskatzaileen artean egongo diren lehentasunak.
 - Helburu berarekin ere beste erakunde batzuk egiten badute eskaera bera; hau da hondakinak berreskuratzearena, guztien artean Debagoieneko eremu geografikoan kokatutakoak izango dute lehentasuna.

4.- GARAPEN EKONOMIKORAKO AGENTZIA

Enplegua eta Prestakuntza

4.1.- Enpresa Ekintzetarako Zentroa

- A.A.A.; luzapen bat

Enplegu eta Prestakuntza Batzordearen proposamenari jarraituz eta Enpresa Ekintzetarako Zentroaren Araudian ezarritakoaren arabera, Gobernu Juntak, aho batez, ondorengo ERABAKI DU:

- Urtebetez, hau da, 2020ko apirilaren 9ra arte, luzatzea Arrasateko Enpresa Ekintzetarako Zentroaren 8-IM industri modulua erabiltzeko baimena, A.A.A. andreari emana, Gobernu Juntaren 2016ko abenduaren 20ko erabaki bitartez.

4.2.- Enpresa eta energia ekintza eta proiektuen kudeaketa egiteko teknikari baten urtebeterako izendapena

2018. urtean Mankomunitate honek Foru Aldundiak finantzaturako hainbat proiektu garatu eta kudeatzeko behin behineko teknikari bat izendatzeko hautaketa prozesu bat burutu zuen, eta horren ondorioz, Oihana Agirre teknikaria izendatu zuen urtebeterako.

2019. urtean, Garapen Agentzia Zerbitzuak Foru Aldundiak lagundutako beste zenbait proiektu kudeatu behar ditu, besteak beste, DEE-CED, Etebalio+, Aktilan, etabar. Horretaz gain, Agentziak, 2019-20rako argitaratuko den deialdian, enpresa eremuko beste proiektu batzuk aurkezteko asmoa du eta horien kudeaketa ere burutu beharko du. Bestalde, Debagoieneko Mankomunitateak, Foru Aldundiko Ingurumen departamentuarekin hitzarmen bat sinatuko du hil honetan eta horren babesean beste hainbat ekintza burutu beharko ditu 2019. urtean eta 2020. urtearen hasieran.

Hau honela izanik, Garapen Agentzia Batzordearen proposamena jarraituz, Gobernu Juntak aho batez ZERA ERABAKI DU:

- Oihana Agirre teknikaria beste urtebeterako izendatzea apirilaren 9tik aurrera aipatu proiektuak garatu eta kudeatzeko, orain arteko baldintza berdinetan.



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

4.3.- Debagoieneko Energia Plana bultzatzeko Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen Departamentuarekin lankidetzak hitzarmena

Gipuzkoako Foru Aldundiak eredu energetiko jasangarri baten aldeko politikak bultzatu nahi izan ditu eta horretarako, eskualde mailako energia planak garatzeko, zenbait garapen agentziekin hitzarmenak sinatu zituen aurreko urtean. Orain, dinamika hori beste eskualde batzuetara zabaldu nahi izan du eta, konkretuki, Debagoieneko Mankomunitateko Garapen Agentziarekin, aurtun, hitzarmena sinatzea proposatu du. Hitzarmen horren babesean, 2019. urtean zenbait jardura ildo landuko ziren, lehenik eta behin, Energiaren Eskualde Plana idatziko litzateke, hurrengo urteetarako jardura aurreikusteko eta batera, eraikin publikoetan efizientzia hobetzeko eta energia berriztagarrien instalazioen bideragarritasuneko planak egingo lirateke. Horretaz gain, mikroenpresetan eta komertzioetan energia aurrezteko diagnostikoak eta biztanleri osoari bideratutako informazio eta sentsibilizazio ekimenak burutuko lirateke. Hori guztia garatzeko, eta aipatutako hitzarmenaren bidez, Debagoieneko Mankomunitateak 50.000,- euroko diru-laguntza jasoko luke.

Foru Aldundiaren proposamena, Debagoieneko Mankomunitateko Garapen Agentzia Zerbitzuak energiaren eraginkortasunaren alorrean garatu duen dinamikarekin bat datorrenez, eta eskualdeko energiaren jardunean hobekuntzak eta ekimen konkretuak bultzatzeko aukera eman dezakeela kontuan hartuz.

Proposatutako hitzarmen zirriborroa irakurri ondoren, eta Garapen Agentzia Batzordearen proposamena jarraituz, Gobernu Juntak aho batez ZERA ERABAKI DU:

- Gipuzkoako Foru Aldundiarekin Debagoieneko Energia Plana bultzatzeko lankidetzak hitzarmena sinatzea proposatutako testuaren arabera.

Une honetan Maria Ubarretxena sartu da bilerara.

4.4.- INNOBASQUE Berrikuntzaren Euskal Agentzian bazkide bezala sartzeko proposamena

Hasteko, Garapen Agentziako arduradunaren INNOBASQUE BERRIKUNTZAREN EUSKAL AGENTZIAREN bazkide egiteko proposamenaren berri eman da. Proposamenak honela dio:

“Innobasque 2007an sortu zen Euskadiko berrikuntza bultzatzeko asmoarekin. Bere xedea honako hau da: “berrikuntzaren garapena bultzatzea, beste ragile batzuekin lankidetzan”. Innobasque irabazi asmorik gabeko eta herri-onurako elkarte pribatu gisa eratu zen eta gaur egun ia 1000 erakunde bazkide batzen ditu aliantza publiko-pribatu bat eratuz.

Innobasque-ren lan eremu garrantzitsuenak ondokoak dira:

- *Berrikuntza-ekinbide berriak sustatzea, erakunde bazkideekin eta Berrikuntzaren Euskal Sistemako eragile guztiekin lankidetzan aritzea.*
- *Berrikuntza-politika berrien diseinua eta inplementazioa hobetzea.*



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

2019an Innobasquek “**HAZINNOVA**” programa garatu behar du, horren helburua berrikuntza profil baxuko ETEetako antolaketa, marketing eta komertzializazio arloetan berrikuntza bultzatzea da. Hori guztia, enpresetan mikro-proiektuak egitearen bitartez lortzea nahi da. Horretarako enpresen kaptazioa eta parte hartzea bideratzeko eragile batzuk adostu behar dituzte eta horien artean, garapen agentziekin kontaktzea nahi dute. Dena dela, “Hazinnova”ko eragileak izateko “Innobasque”ko kidea izatea beharrezkoa izango litzateke. Bitartekari-eragilea izateagatik diru kopuru finko bat ordaunduko lukete (2000 edo 3000 €koa) eta programan parte hartzeko kaptatzen den enpresa bakoitzeko 350€ko kopurua ordainduko lukete.

Programak eskualdeko ETEetara gehiago hurbiltzeko eta kudeaketa hobetzeko proposamen konkretuak egiteko aukera emango liguke, ondorioz, egokia ikusten dugu “Hazinnova”n parte hartzea eta horrek “Innobasque”ko kidea izatea eskatzen duenez, kide egiteko proposamena luzatzen dut.”

Idazkariak ohartarazi du INNOBASQUEn bazkide bezala sartzeko erabakiak Juntakideen gehiengo absolutuaren aldeko botoa behar duela, hau da, 9 aldeko boto.

Iraitz Lazkanok dio gai honi buruz ez dela Garapen Agentzia Batzordean hitz egin. Bere ustez, ez dela normala Programa batean parte hartzeko INNOBASQUEko bazkide izatea eskatzea. Aztertu behar dela ia bazkide izateak Garapen Agentziari nolabaiteko ekarpenik egiten dion.

Bestalde, Maria Ubarretxenak, Lander Arregik eta Juan Karlos Garitanok diote hainbat proiektu garatu dituztela INNOBASQUEekin eta esperientzia positiboa izan dela. Garapen Agentzia bitartez enpresa txikiak hurbil daitezkeela.

Koldo Azkoitia, Garapen Agentziako arduraduna, ere etorri da bilerara eta esan du Mankomunitatea bitartekari eragilea izango litzatekeela.

Eztabaida baten ondoren, azkenik, lehendakariak botazioa planteatu du, ondorengo emaitzarekin:

- 6 boto INNOBASQUEko bazkide egitearen alde. (Unai Elkoro, José Miguel Uribarren, Maria Ubarretxena, Juan Karlos Garitano, Elena Lete eta Lander Arregi).
- 3 abstentzio (Iraitz Lazkano, Juan Bengoa eta Mikel Biain).

Beraz, ez direnez aldeko 9 boto lortu, ez da onartu INNOBASQUE BERRIKUNTZAREN EUSKAL AGENTZIAN bazkide egiteko proposamena.

4.5.- Mankomunitateko hainbat udalerrietako argiteri publikoan energia aurrezteko LED luminariak eta ekipak hornitzeko eta instalatzeko kontratazio espedientea; proposamenen sailkapena onartzea.

Mankomunitate honetako Gobernu Juntak, 2018ko abenduaren 18an egindako bilkuran, Mankomunitate honetako hainbat udalerrietako argiteria publikoan energia aurrezteko LED teknologiako argiak eta ekipamenduak hornitzeko eta instalatzeko



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

kontratazio espedientea, gastua eta Administrazio Klausula Partikularren eta Baldintza Teknikoen Agiriak onartu zituen eta esleitze-prozedura irekitzea erabaki zuen.

Horretarako emandako epean ondorengo proposamenak aurkeztu dira:

1 lotea: Aretxabaleta udalerrian argiteria publikoa berritzea

- 1 TECUNI, S.A.

2 lotea: Arrasate udalerrian argiteria publikoa berritzea

- 1 TECUNI, S.A.
- 2 ENDESA ENERGÍA, S.A.U.

3 lotea: Bergara udalerrian argiteria publikoa berritzea

- 1 TECUNI, S.A.

4 lotea: Eskoriatza udalerrian argiteria publikoa berritzea

- 1 TECUNI, S.A.

“B” gutun-azal elektronikoan jasotako dokumentazioa eta udal teknikarien txostenak aztertu ondoren, Kontratazio Mahaiak, Eskoriatzako udalerriri dagokion 4 lotera aurkeztutako proposamen bakarra, TECUNI, S.A. enpresarena, baztertzea erabaki du B tipoko argi bezala “CassisStreet” argia proposatu duelako, plegu teknikoan jasotako baldintzak betetzen ez dituen, zehazki inpaktuei aurre egiteko erresistentziari dagokionez, proposatutako argiaren IK parametroa 08koa baita, eskatutako 09 izan beharrean. Halaber, ez betetzeagatik lan eremu guztietarako azterketa luminoteknikoak aurkezteko baldintza, “Castañares” eremuari dagokiona ez baitu aurkeztu.

Arrasateko udalerriri dagokion 2 lotera aurkeztutako proposamenen “B” gutun-azal elektronikoan jasotako dokumentazioa balioetsi ondoren, eta 1 eta 3 loteetara aurkeztutako proposamen bakarraren “B” gutun-azal elektronikoaren dokumentazioak eskatutako baldintza guztiak betetzen dituela egiaztatu ondoren, Kontratazio Mahaiak onartutako proposamenen “C” gutun azal elektronikoak ireki ditu, eta 2 loteko eskaintzak segida beherakorrean sailkatu ditu, Administrazio Klausula Partikularren Pleguan jasotako irizpideen arabera.

Hau honela izanik, Gobernu Juntak, Kontratazio Mahaiaren proposamena jarraituz, aho batez ZERA ERABAKI DU:



DEBAGOIENEO MANKOMUNITATEA

1 lotea: Aretxabaleta udalerrian argiteria publikoa berritzea

1. Proposamen bakarra aurkeztu duen enpresari, TECUNI, S.A., hamar laneguneko epea ematea, Mankomunitatearen errekerimendu hau jaso eta biharamunetik kontaktzen hasita, Administrazio Klausula Berezien Pleguaren 17. klausulak, 5. atalean, jasotako dokumentazioa aurkezteko.

2 lotea: Arrasate udalerrian argiteria publikoa berritzea

2. Ondorengo eskaintzen sailkapena onartzea:

	<u>Enpresa lizitatzailerak</u>	<u>Balorazio iritziaren araberako irizpideak</u>	<u>Irizpide automatikoak</u>	<u>GUZTIRA</u>
		30 puntu	70 puntu	100 puntu
1	TECUNI, S.A.	27	70	97 puntu
2	ENDESA ENERGÍA, S.A.U.	5	63,50	68,50 puntu

3. Sailkapen honen arabera, TECUNI, S.A. enpresak aurkeztutako proposamena denez eskaintzarik onena, aipatu enpresari hamar laneguneko epea ematea, Mankomunitatearen errekerimendua jaso eta biharamunetik kontaktzen hasita, Administrazio Klausula Berezien Pleguaren 17. klausulak, 5. atalean, jasotako dokumentazioa aurkezteko.

3 lotea: Bergara udalerrian argiteria publikoa berritzea

4. Proposamen bakarra aurkeztu duen enpresari, TECUNI, S.A., hamar laneguneko epea ematea, Mankomunitatearen errekerimendu hau jaso eta biharamunetik kontaktzen hasita, Administrazio Klausula Berezien Pleguaren 17. klausulak, 5. atalean, jasotako dokumentazioa aurkezteko.

4 lotea: Eskoriatza udalerrian argiteria publikoa berritzea

5. Lote hau huts deklaratzeko, aurkeztutako proposamen bakarrak, TECUNI, S.A. enpresak aurkeztutakoak, ez baitu Baldintza Teknikoen Pleguan jasotako baldintza guztiak betetzen.



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

5.- LEHENDAKARITZA

5.1.- Lehendakaritzaren ebazpenak

Lehendakariak ondorengo ebazpenen berri eman du:

19/16.- 19/02 faktura-zerrenda onartzea eta berauen ordainketa agintzea, guztira LAUREHUN ETA HIRUROGEITA LAU MILA BOSTEHUN ETA BOST EURO ETA SEI ZENTIMO (464.505,06 €).

19/17.- Gas naturalez hornitzeko Gipuzkoako Foru Kontratazioen Zentralak irekiko duen esparru-akordioaren kontratazio espedienteari atxikitzea, 2011ko maiatzaren 18ko Gobernu Juntak onartutako hitzarmenean, eta 2011ko otsailaren 22ko 2011/3 Foru Dekretuan ezarritako eran eta baldintzetan.

Konpromisoa hartzea esparru-akordioaren enpresa esleipendunari Mankomunitatearen kontratu eratorria esleitzeko, Foru Aldundiak esparru akordioa formalizatu ondoren eta hark adierazitako epean, betiere.

Baimena ematea Gipuzkoako Foru Aldundiari Mankomunitate honen gas naturalaren kontsumo datuak enpresa hornitzaileari eskatu eta horiek eskuratzeko, kontratazio espedientea aratuko duten baldintza agirietan jaso ahal izateko.

Ebazpen honen berri Gobernu Juntari ematea datorren bilkuran.

19/18.- Posta zerbitzua kontratatzeko Gipuzkoako Foru Kontratazioen Zentralak irekiko duen esparru-akordioaren kontratazio espedienteari atxikitzea, 2011ko maiatzaren 18ko Gobernu Juntak onartutako hitzarmenean, eta 2011ko otsailaren 22ko 2011/3 Foru Dekretuan ezarritako eran eta baldintzetan.

Konpromisoa hartzea esparru-akordioaren enpresa esleipendunari Mankomunitatearen kontratu eratorria esleitzeko, Foru Aldundiak esparru akordioa formalizatu ondoren eta hark adierazitako epean, betiere.

Ebazpen honen berri Gobernu Juntari ematea datorren bilkuran.

19/19.- 1.- Epeleko zabortegian atmosferara egindako gas emisio eta inmisioen neurketak egiteko kontratua APPLUS NORCONTROL, S.L.U. enpresari esleitzea ondorengo prezioan:

- Epeleko zabortegiaren ustiapen faseko kontrola: 16.700 €/urteko, gehi 3.507 €, BEZaren %21ari dagokiona.
- Epeleko zabortegia itxi osteko faseko kontrola: 2.200 €/urteko, gehi 462 €, BEZaren %21ari dagokiona.

2.- Aipatu enpresarekin dagokion kontratua sinatzea erabaki hau jakinarazi eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita 15 laneguneko epean.

3.- Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 62. artikulua betez, Maddi Altuna Odriozola, Ingurumen Zerbitzuko behin behineko arduradun teknikoa, izendatzea kontratu honen arduradun.



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

4.- Enpresa esleipendunak adierazitakoaren arabera, kontratu honen xede diren lanetan arituko diren langileei “*Convenio colectivo de empresas de ingeniería y oficinas de estudios técnicos*” delakoa aplikatuko zaie.

19/20.- 1.- Debagoieneko Mankomunitatearen 2019ko Enplegu Publikoaren ondorengo Eskaintza onartzea:

2019KO ENPLEGU PUBLIKOKO ESKAINTZA

A) Aldi baterako enplegua egonkortzeko tasa (estatuaren 2018rako Aurrekontu Orokorren Legea)

Funtzionarioak

Taldea: A2.

Klasifikazioa: Administrazio Bereziko Eskala. Zerbitzu Berezietako Azpieskala.

Bete gabe: 2

Deitura: Informatzaile teknikari.

Hautaketa: Lehiaketa-oposizio irekia.

Hizkuntza eskakizuna: 4

Derrigortasun data: 2018.11.20.

B) Barne promozioa

Lan kontratudun langileak

Talde asimilatua: C1.

Bete gabe: 1.

Deitura: Txofer-langileburua.

Hautaketa: Lehiaketa-oposizioa.

Hizkuntza eskakizuna: 3

Derrigortasun data: 2022.12.31.

2.- Enplegurako Eskaintza hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, eta laborpen bat Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 24. artikuluan jasotakoa betez.

19/21.- 1.- URIKER, S.L. enpresak aurkeztutako eskaintza onartzea, bere bideragarritasuna justifikatu delako.

2.- Aipatu enpresari eskatzea errekerimendua bidaltzen den egunetik kontatzen hasi eta zazpi egun balioduneko epean ondoren adierazten diren jarduketak egiteko edo dokumentu hauek aurkezteko:

1. 1.228 €ko behin betiko bermea eratu izanaren egiaztagiria.
2. Proposatutako laborategiak kontratuari atxikitzeko konpromisoa.
3. Laneko arriskuak prebenitzeari buruzko dokumentuak.



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

19/22.- 1.- Zehapen espedientea hastea Bergarako POL-POL tabernaren aurka, 2019ko otsailaren 11n ustez egindako falta arin bategatik, Ingurumen Zerbitzuaren txostenean jasotako gertaera hauetan oinarrituta:

“2019/02/11n aurre bilketa zerbitzuko langileak 229. edukiontzi gunearen ondoan lurrean zegoen zabor poltsa baten argazkiak bidali dizkio Mankomunitateari. Poltsa barruan dauden hondakinetatik ondorioztatzen da zabor nahasiz betetako poltsa horren jatorria Pol-pol taberna dela. Aipatzekoa da intzidentzia hori gertatu aurretik beste behin ere bidali zitzaiola jakinarazpena Pol-pol tabernari, 2018ko abuztuan. Bertan, jakinarazten zen hondakinak sailkatu gabe eta bakoitza dagokion edukiontzi barrura ez botatzeak Ordenantzan arau haustea suposatzen duela, eta horrek isuna ekar dezakeela.”

19/23.- 1.- Zehapen espedientea hastea Bergarako AZIZ EL CHAOUAL jaunaren aurka, 2019ko otsailaren 3an ustez egindako falta arin bategatik, Udaltzaingoaren txostenean jasotako gertaera hauetan oinarrituta:

“2019ko otsailaren 3an, goizeko 9:50etan, 647466XXX telefonotik dei bat jasotzen da zaborrei buruzko kexa bat aurkezten. N.A.H. bezala identifikatzen den pertsonak dio, gaueko 1:00etan, txakurrak ateratzen ari zela, Osintxun, eliza parean furgoneta bat geratu zela eta zabor ontziak dauden gunean 9 zabor poltsa handi utzi zituztela lurrean. Hau beraiengana hurbildu eta errieta egin zien, poltsak ontzi barrura sartzeko esanez. Ez zien kasurik egin eta bi zirenez, salatzailea etxera joan zen. Gris koloreko Mercedes Benz 9308DLJ matrikuladun furgoneta bat zen. Marrokoko bi gizon bezala identifikatzen ditu. Gidaria, txikia eta bizarduna. 43 zenbakidun udaltzainak, matrikula datu basean konprobatu ondoren, Martoko 26, 2 ezk. kalean bizi den Aziz EL CHAOUAL, jabea dela ikusten du. 43 udaltzainak berehala ezagutzen du gidaria, hainbat aktuazio izan dituelako berarekin eta salatzaileak emandako deskribapenarekin bat egiten du. Berehala, 42 eta 43 zenbakidun udaltzainak Osintxura abiatzen dira zaborra nola utzi duten ikuskatzera. Bertan, zabor poltsa industrial handi bat bakarrik ikusten dute lurrean, gehien bat arropaz betea. Ordea, errefusa edukiontzia ia osoa arropaz eta traste txikiez beterik ikusten dute. Udaltzainak inguruan galdetu ondoren, auzokoek esaten die, bertako den R.B.F. poltsa denak hartu eta ontzi barrura bota dituela, lurrean ikusten duen zabor guztiarekin egiteko ohitura duen bezala. 2019ko otsailaren 3an, hainbat aldiz Aziz EL CHAOUALen etxebizitzatik pasatu gara baina ez zegoen inor. Arratsaldeko 16:00etan, berriro joan gara eta bere emazteari gertatutakoa azaldu diogu.”

19/24.- Lehena.- Bi mila eta hamazortziko Debagoieneko Mankomunitateko aurrekontuaren likidazioa onartzea. Hona hemen horren laburpena:

1.- Altxortegiko izakin likidoak, 2018.12.31n:	2.056.146,56 €
2.- Kobratu gabeko saldoak. 2018.12.31n:	1.452.965,65 €
Ekitaldiko aurrekontuko zordunak	700.241,82 €
Aurreko ekitaldietako aurrekontuko zordunak	222.973,81 €
Aurrekontuz kanpoko zordunak:	529.750,02 €
(-) Aplikatu gabeko kobrantzak:	0,00 €
3.-Ordaindu gabeko saldoak. 2018.12.31n:	833.752,25 €



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

Gastuen aurrekontuko hartzekodunak:	535.338,54 €
Sarreraren aurrekontuko hartzekodunak:	0,00 €
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak:	298.413,71 €
Aplikatu gabeko ordainketak:	0,00 €
4.- Altxortegi-gerakin gordina (1+2-3):	2.675.359,96 €
5.- Obra handietarako (Epele) hornidura:	1.685.891,52 €
6.- Saldo kobragaitzak:	3.839,37 €
7.- Altxortegi-gerakin likidua (4-5-6):	985.629,07 €
8.-Finantzaketa lotua duten gastuetarako altxortegi-gerakina:	0,00 €
9.- Gastu orokorretarako altxortegi-gerakina:	985.629,07 €
10.- Aurtengo aurrekontuko eragiketen emaitza:	-326.672,88 €
11.- Aurreko ekitaldietan likidatutako aurreko. eragiketen emaitza:	-316.722,38 €
12.- Doiketa aurreko aurrekontu emaitza	-643.395,26 €
13.- Doiketak, gerakinaren finantzatutako obligazioengatik: (2018ko kredituak 2017ko gerakinekin finantzatuak)	248.578,98 €
14.- Doiketa finantzaketa lotua duten gastu desbiderapenagatik:	0,00 €
15.- Aurrekontu-emaitza (12+13+14):	-394.816,28 €
16.- Txerta daitezkeen kreditu-gerakinak:	666.476,41 €
17.- Txertatu ezin diren kreditu-gerakinak:	319.152,66 €

Bigarrena.- Gipuzkoako Foru Aldundiari likidazio-espeditarearen kopia bidaltzea, indarrean dagoen legedia betez.

Hirugarrena.- Gobernu Juntari ebazpen honen berri ematea hurrengo bileran.

19/25.- 19/03 faktura-zerrenda onartzea eta berauen ordainketa agintzea, guztira LAUREHUN ETA HOGEITA BI MILA BOSTEHUN ETA HOGEITA HAMAZORTZI EURO ETA BERROGEITA BI ZENTIMO (422.538,42 €).

19/26.- 1.- Hondakin bilketako alboko kargako edukiontzietarako pedalak hornitu eta instalatzeko kontratua ROS ROCA, S.A.U. enpresari esleitzea 82.000 €-ko prezioan, gehi 17.220 €, BEZaren %21ari dagokiona.

2.- Aipatu enpresarekin dagokion kontratua sinatzea erabaki hau jakinarazi eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita 15 laneguneko epean.

3.- Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 62. artikulua betez, Maddi Altuna Odriozola, Ingurumen Zerbitzuko behin behineko arduradun teknikoa, izendatzea kontratu honen arduradun.

19/27.- 1.- Epeleko zabortegiko lur gaineko uren, lurpeko uren eta lixibiatuen, eta Bergarako garbiguneko eta San Balerio garajeko isurketa uren laginak jasotzeko, landa



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

neurketak egiteko eta laborategiko analisiak egiteko kontratua URIKER S.L. enpresari esleitzea ondorengo prezioan:

- Epeleko zabortegiaren ustiapen faseko kontrola: 9.338,93 €/urteko, gehi 1.961,18 €, BEZaren %21ari dagokiona.
- Epeleko zabortegia itxi osteko faseko kontrola: 1.679,36 €/urteko, gehi 352,66 €, BEZaren %21ari dagokiona.
- Bergarako garbigunearen eta San Balerio garajearen kontrola: 170,01 €/urteko, gehi 35,70 €, BEZaren %21ari dagokiona.

2.- Aipatu enpresarekin dagokion kontratua sinatzea erabaki hau jakinarazi eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita 15 laneguneko epean.

3.- Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 62. artikulua betez, Maddi Altuna Odriozola, Ingurumen Zerbitzuko behin behineko arduradun teknikoa, izendatzea kontratu honen arduradun.

3.- Enpresa esleipendunak adierazitakoaren arabera, kontratu honen xede diren lanetan arituko diren langileei Bizkaiko Bulegoen Sektoreko hitzarmen kolektiboa aplikatuko zaie.

19/28.- Debagoieneko Mankomunitatearen lurralde-eremuan 16 eta 18 urte tarteko gazteen lan eta gizarte txertaketa errazteko programak garatzen dituzten onura publikoko erakundeei diru-laguntzak emateko 2019ko deialdia onartzea, ondorengo klausulen arabera:....

19.000 €-ko gastua baimentzea 2019ko Aurrekontu Orokorraren 7100.481.241.00.01 partidaren kargura, deialdi honi aurre egiteko.

19/29.- - M.T.L. langileari 5.409,11 €-ko mailegua ematea, 24 hilekotan itzuli beharko duelarik.

6.- GALDE-ERREGUAK

- Mikel Biainek etxeko hondakin bilketa zerbitzuaren herriz herriko kosteen txosten ekonomiko eguneratua eskatu du berriro.

Eta beste aztergairik ez dagoenez, 14:00etan, bukatutzat eman da bilkura.